



HONDAKINAK

Urola Kostako Eskolako Agenda 21. 2018-2019 ikasturtea

UDAL JARRAIPIEN FOROA ZARAUTZ. 2019ko OTSAILAK 20			
2017-2018 IKASTURTEKO UDAL FOROAREN JARRRAIPENA			
UDALARI PROPOSAMENA	UDALAK BETE AL DU?	GURE KONPROMISOA	GUK BETE AL DUGU?
1. Plastikozko poltsen erabilera murriztea. Debekatzea. Ez ekoiztea gehiago. Ordezko poltsen erabilera sustatu kanpainen bidez. Bizilagunei erosketak egiteko ordezko poltsatxoak eskaini.		1.1. Plastikozko bilgarririk gabeko produktuak kontsumitu. Bertako sasoiko produktu osasuntsuak	
		1.2. Gure aldetik, hamaiketakorako aluminiozko eta plastikozko poltsen ordez, kantinplora eta tuperrak erabiltzera konprometitzen gara.	
<p>Udalaren erantzuna: bertaraturiko guztioi ongietorria eman ondoren, erantzuteari ekin dio Gizarte Politika eta Agenda 21eko zinegotzia den Gloria Vazquezek. Hala, lehenengo irtenbidea murrizketa dela aipatu du, ondoren berrerabilpena eta azkenik birziklapena. Beraz, plastikoen murrizketa oso garrantzitsua da. Hala, martxoan, Emaus Elkarteak kudeatuta, hondartza garbitzeko kanpaina bat burutu zen. Izan ere, itsasoa plastikoz betetzen ari gera eta aurki arrainak baino gehiago izango da bertan. Beraz, Zarautz plastikorik gabeko herria izateko helburuari erantzuten dion kanpaina abiatu zen martxoan, eta ekainean jarraipena izango du:</p> <ul style="list-style-type: none"> o Sarez egindako poltsen banaketa burutuko da merkatu Plazan. o 26.000 poltsak onpostagarri dendetan banatu dira plastikozkoengatik ordezkatzeko. o Asteko egun bat "poltsarik gabeko eguna" izango da eta dendariei eskatuko zaie poltsarik ez banatzeko (borondatezko partaidetza izango da). o Berrerabilitako 40 karritozozketatuko dira (dendetan egongo diren xartelen bitartez). Honek guztiak udazkenean izango du jarraipena eta dagoeneko herriko hainbat Gobernu Kanpoko Erakundek parte hartzeko borondatea azaldu dute, eta poztekoa da. 			
UDALARI PROPOSAMENA	UDALAK BETE AL DU?	GURE KONPROMISOA	GUK BETE AL DUGU?
2 Sentsibilizazio kanpaina gehiago egin. Esaterako, hondartza eta mendia garbitu, eta birziklatzearen beharra aldarrikatu komunikabideetan gizarteak kontzientzia har dezan. 3. Kontzientziazioa burutzea herri mailan, eskoletan,		2.1. Ogitarteak biltzeko aluminiozko papera ez dugu erabiliko. Oihalezko poltsatxoak erabiliko ditugu (bokanrola). Ontzi arinak eta plastikozko poltsak birziklatu egingo ditugu.	



HONDAKINAK

Urola Kostako Eskolako Agenda 21. 2018-2019 ikasturtea

UDAL JARRAIPIEN FOROA ZARAUTZ. 2019ko OTSAILAK 20			
2017-2018 IKASTURTEKO UDAL FOROAREN JARRRAIPENA			
UDALARI PROPOSAMENA	UDALAK BETE AL DU?	GURE KONPROMISOA	GUK BETE AL DUGU?
enpresetan nahiz merkataritzan.		3.1. Gure aldetik, eskolan ahal dugun guztia birziklatzeko konpromisoa hartuko dugu.	
<p>Udalaren erantzuna: funtsezkoa da bere neurrian bakoitzak ahal duena egitea, norberaren egunerokotasunean. Horregatik oso garrantzitsuak dira harturiko konpromisoak. Bestetik, mendia, hondartza edota errekek garbitzeko irteera gehiago egitea egokia izan daiteke, eskola barruko zein kanpoko ordutegian, larunbatetan esaterako (Gloria Vazquez).</p>			
UDALARI PROPOSAMENA	UDALAK BETE AL DU?	GURE KONPROMISOA	GUK BETE AL DUGU?
4. Parkeetako zakarrak bereizteko ontzi hauek maizago hustea proposatzen dugu. Bestetik, parkeetan (Lagunak, Torre Luzea, Villa Mundakoa, Salbidekoa...) edukiontzi desberdinak jartzea eta denak elkarren ondoan.		4.1. Gure aldetik, zaborrik lurrera ez botatzeko eta dagokion ontzian uzteko konpromisoa hartzen dugu. Eskolara ekartzen dugun hamaiketakoak ahalik eta hondakin gutxien sortzeko saiakera ere egingo dugu. Zaborrak edukiontzi egokietara botatzera konprometitzen gara. Kaleak txukun mantenduko ditugu eta zakarrontziak gehiago erabiliko ditugu.	
<p>Udalaren erantzuna: Udalaren erantzuna: haur eta parkeetan ezartzen ari dira poliki poliki. Helburua herrian zehar zabaltzea da. Gainera, konpromisoak eredugarriak iruditu zaizkio Xabier alkateari, helduak haurrengandik zer ikasi dutelarik (Xabier Txurruka).</p>			



HONDAKINAK

Urola Kostako Eskolako Agenda 21. 2018-2019 ikasturtea

UDAL JARRAIPIEN FOROA ZARAUTZ. 2019ko OTSAILAK 20			
2017-2018 IKASTURTEKO UDAL FOROAREN JARRRAIPENA			
UDALARI PROPOSAMENA	UDALAK BETE AL DU?	GURE KONPROMISOA	GUK BETE AL DUGU?
5. Birziklatzea derrigorrezkoa izatea eta hondakinak lurrera botatzen dutenei isunak jartzea. Beste herrialde batzuetan bezala, birziklatzen dutenei zergak jaiste ere proposatzen dugu. zergak murriztu birziklatzen dutenei.		5.1. Oihalezko poltsak erabili erosketak egiterakoan.	
		5.2. Bakoitzak gure ardua eta gauzak berrerabiltzen saiatzeko konpromisoa hartzen dugu.	
<p>Udalaren erantzuna: Ogasuna eta Finantzak, Industria eta Nekazaritza, Herritarren Arreta Zerbitzua, eta Barne Kudeaketa eta Giza Baliabideen zinegotzia den Jesus Aranaren hitzetan hondakinen kudeaketa azken hilabeteotan aldatu egin da, orain Urola Kostako Udal Elkarteak (Zumaia, Getaria, Zarautz, Orio eta Aia) errefusa ere kudeatzen baitu. Horrenbestez, etxeetan, enpresetan, dendetan...gaika biltzen ari gara. Hala, birziklatze tasa %40tik ia %70era igo da, beraz zoriontzekoa da. Konpromiso horren hedapena oso garrantzitsua da. Guztion eginbeharra da, baita legez ere.</p> <p>Bestetik, ondo eta gaizki sailkatzen duena identifikatzea zaila denez, ezin izango dira zergak horren arabera murriztu. Aldiz, errefusa tratatzea garestiagoa denez, errefusa murriztu ahala, tasak ere murriztuko dira.</p> <p>Azkenik, Zarautzen badago hondakinen sorrera murrizteko aukera bikaina: produktu freskoak Merkatu Plazan erosiz. ("Merkatutik zuretzat" kanpaina burutu zen horretarako).</p>			
UDALARI PROPOSAMENA	UDALAK BETE AL DU?	GURE KONPROMISOA	GUK BETE AL DUGU?
6. Garbigunera eraman beharreko objektu txikiak jasotzeko lekuren bat jartzea herri barnean (CD, toner, bonbilla...).		6.1. Gure familiak informatzera eta etxean birziklapena bultzatzera.	
<p>Udalaren erantzuna: arrazoi eman die Xabier alkateak. Izan ere, Garbigunea Abendañon dago eta baina txikia geratu da. Hala, Urola Kostako Udal Elkartetik badago proiektu bat hura zabaltzeko. Gainera, bestelako etxolak ere eskatuko zaizkio Urola Kostako Udal Elkarteari (Zumaian edo Getarian dagoeneko badaude).</p>			
UDALARI PROPOSAMENA	UDALAK BETE AL DU?	GURE KONPROMISOA	GUK BETE AL DUGU?



HONDAKINAK

Urola Kostako Eskolako Agenda 21. 2018-2019 ikasturtea

UDAL JARRAIPEN FOROA ZARAUTZ. 2019ko OTSAILAK 20			
2017-2018 IKASTURTEKO UDAL FOROAREN JARRRAIPENA			
UDALARI PROPOSAMENA	UDALAK BETE AL DU?	GURE KONPROMISOA	GUK BETE AL DUGU?
7. Noizean behin eskoletatik hondartza garbitzera joateko txangoak burutzea. Ez da nahikoa urtean behin joatearekin.		7.1. Gure aldetik, hondartzetan pilatzen den zaborra berrerabiliz proiektuak burutzeko konpromisoa hartuko dugu.	
<p>Udalaren erantzuna: irteerak antolatu daitezke mendia, hondartza edota errekek garbitzeko. Gainera, oso garrantzitsua da inguru horiek ez zikintzea, ondorioak larriak direlako. Bestetik, Emaus edo antzeko erakundeen pabeloietara bisita egitea interesgarria izan daiteke (Gloria Vazquez).</p>			